

Tradizioaren arrastoan

Ruben Ruiz arabarra ibilbide literario interesgarria pauso sendoz finkatuz dato-rren idazlea da. Al-buma, poesia, ipuina... landu ditu orain arteko ibilbide oparoan, oraindik orain haur literaturako Lizardi Sariarekin aitortua, Anekdotak liburuagatik, hain zuzen ere.

Liburuko protagonista Ane izeneko neskato bat da, zortzi bat urtekoa, egunerokoan gertatzen zaizkion pasadizoak edo ikusten dituen bitxikeriak idatziz kontatzea erabaki duena. Azkenean, hogeita hamar bat testu labur bildu ditu, bere-bereak, eta horregatik jarri die «anekdotak» izena, Anerenak direlako.

Ume baten begi-belarriak jasotako istorioak izanik, xalotasuna darie testu hauei: ume txiki baten harridura helduen konbentzio askorekin. Abiapuntu horrek bide batzuk zabaldu dizkio idazleari; batetik, hitzekin egindako jolasak, bereziki Carrollen Aliziak «maleta-hitzak» deitzen zituen haiekin, hau da, bere barruan beste hitzak daramatzaten hitzak, liburuaren izenburuak protagonisten izena daraman bezala. Beste bide bat, Rodariz gero oso emankorra, eguneroko hizkerako esamoldeak zentzu zuzenean hartzetik datozen gaizkiulertuak dira, hala nola testu honetako «zakur-eztula izatea» edo «adurra dariola egotea». Liburuko baliabideen inbentarioa agortu gabe, aipatuko dudaz azken bidea protagonistaren begirada xaloaren ondoriozko umore beltza da, «Aitona» izeneko pasartean bezala.

Ruben Ruizen testu interesgarri honek originaltasunari uko egiten dio, propio uko egin ere, euskal haur literatura modernizatu duen tradizio emankor batean txertatzeko. Garapen narratiborik gabe eta protagonista baten ahotsa beste loturarik ez duten kontakizun laburren (edo mikroipuenen) adibide kanonikoa Mariasun Landaren *Iholdi* izan zen; haren atzetik, inoiz aipatu dudaz bezala, beste asko etorri dira: Juan Kruz Igerabideren *Bota ura! (nire terrazatik)*, Josu Penadesen *Iluntzero elkarrekin* eta Patxi Zubizarretaren *Gaspar eta zuhaitzak* izan dira aipagarrienak. Kasu batzuetan, pasadizo horiek esplizituki jasotzen dira idatziz, sinesgarritasunaren auzia zabalduz, Igerabidere-nean bezala (norbaitek oparitutako koadernoan), eta beste batzuetan, berriz, ez; edonola ere, ezaugarri ondo definituak dituen «azpigenero» baten aurrean gaudela esan daiteke. Horregatik, Anekdotak irakurtzean, beste horietako oihartzunak entzutea ezinbestekoa zaio irakurleari.

Lizardi sariko idazlan irabazleen tradi-zioan ere sartu da *Anekdotak* hau, eta aurreko askori bezala umeari begira baino gehiago bitartekariari begira idatzia izatea kritikatu zaio akaso. Izan ere, beste tradizio horretan *Txan fantasma*, *Tristuraren teoria* edo *Kea airean bezala* obren ondoan egoteak etiketa hori ekar dezake. Ez dut uste, ordea, hala denik.

Eider Eibar irudigile gaztearen estilo pertsonala, azkenik, bereziki nabarmentzen da koloretan egindako edizio ikusgarri honetan.

Manu Lopez Gaseni